

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Udala****Getxoko Udal Araudi Organikoaren aldaketa partzialaren behin betiko onepena.**

I. 2019ko urtarrilaren 30eko osoko bilkuran hartutako erabakiaren ondorioz, hasiera batean onetsi dira Getxoko udal araudi organikoaren aldaketa partziala

II. Erabaki horiek, bere espedientearekin batera, jendaurreko informazio eta interesdunen entzunaldi izapidera menpekoak da, hogeita hamar egunez, iragarki hori 2019ko otsailaren 13ko 31 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, egoki irizitako erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko.

III. Emandako epean ez denez inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, Alkatetzaren 1898/2019 Dekretuaren bidez behin betiko onetsitakotzat joko da aldaketa. Horrenbestez, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikulua xedatutakoarekin bat etorri argitaratu da.

UDAL ARAUDI ORGANIKOAREN ALDAKETA PARTZIALA**HITZAURREA**

Indarrean dagoen Getxoko Udal Araudi Organikoa 1986ko abenduaren 23ko osoko bilkuraren saioan onetsi zen, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eranskin moduan argitaratu zen 1987ko otsailaren 12an. Gerora, aldaketa txikiak egin zaizkio, baina ez dute nabarmen aldatu haren edukia. Udal Araudi Organiko hori onetsi zen 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, indarrean sartu eta denbora gutxira. Hark, 20. artikuluan, udal antolakuntzari buruzkoan, Udal Araudi Organikoaren existentzia aurreikusten du.

Garai urrun horietatik gaurdaino hainbat aldaketa egin zaizkio Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeari, eta, funtsean, udalen gobernu eta administrazio parlamentu baten funtzionamendura inguratu dute apurka-apurka, eta alkatetzaren kudeaketa eskumenak indartu ditu, baita udalbatzaren kontrol eta fiskalizazio eskumenak ere.

Horrez gain, aurrera egin da herritarren partaidetza prozesuetan, eta administrazio publiko guztietan aplikatu beharreko gardentasunean. Erabakigarria izan zen Eusko Jaurlaritzak 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa onestea, logikoa den moduan, Udal Araudi Organikoaren xedapenei eragiten baitie.

Getxoko Udalean, legegintzaldi honetan, lantalde bat sortu zen, talde politiko bakoitzeko ordezkari batek osatutakoa eta Koldo Iturbe udalkideak koordinatutakoa, erabakiak hartzeko Udal Araudi Organikoaren testu berriaren inguruan. Talde hori lanean hasi zen 2016ko hasieran, eta ordutik lanerako hainbat bilera izan ditu. Dena den, legegintzaldian ez dira talde guztiak bertan mantendu.

Hartutako erabakien emaitza Udal Araudi Organikoaren aldaketa partzialaren proposamen honetan jasota dago. Aldaketa horren asmoa da funtsean ordenatuagoak eta eraginkorragoak izatea Udalbatzako eztabaidak eta informazio-batzordeen funtzionamendua, Bozeramaileen Batzordea arautzea, Tokiko Gobernu Batzarraren araudia eguneratzea, hizkuntza inklusiboagoa erabiltzea udal kargu organikoen izendapenean eta zehazki arautzea udal aurrekontuen izapideak, informazio-batzordeak, nahiz osoko bilkuretako eta informazio-batzordeetako herritarren partaidetza.

Proposamen hori izaera orokorreko xedapen baten aldaketa bezala izapidetu behar da, hala baita Udal Araudi Organikoa, dagokion informazio-batzordean. Oinarrizko testu bat da, indarrean dagoen Udal Araudi Organiko osoa egokitzea iristen ez dena, baizik eta aurrez zerrendatutako alderdiak soilik aldatzen dituena. Egoki irizten zaio hura hu-



rrengo legegintzaldian indarrean sartzeko onartzeari, oztopatu gabe eguneratze lanekin jarraitzea eta herritarren partaidetzari buruzko beharrezko edukiak gehitzen jarraitzea.

Azken batean, helburua egokitzapen partzial eta puntual bat egitea da, funtsean udalaren organo beharrezkoen ingurukoa, eta arautzea haien funtzionamendua, haien esku-menen esparrua eta herritarrek organo horietan esku hartzeko duten aukera.

I. KAPITULUA

OSOKO BILKURAREN ARAUTZEA. EZTABAIDAK

1. artikulua. — *Eztabaida duten eta eztabaidarik ez duten gaiak*

1. Alkateak gaiaren enuntziatua irakurriko du eta idazkariak edo idazkari nagusiak akordio-proposamena irakurritakoan gaia onesten den ala ez galdetuko du.

2. Bertaratutako guztiek ohiko baliabideen bidez ados daudela agertzen badute, gaiak aho batez onetsita geratuko dira, bozketarik egin gabe, eta alkateak berariaz adieraziko du.

3. Udalbatzako kideren batek parte hartu nahi duela adierazten badu, alkateak eztabaidatzea edo, hala badagokio, geroago bozkatzea aginduko du.

2. artikulua. — *Eztabaidak agintzeko arauak*

1. Eztabaida sustatzen bada, alkateak arau hauen arabera aginduko du norberak hitz egitea:

- a) Alkateak baimena eman arte bakarrik hitz egin ahalko da.
- b) Eztabaidaren hasieran udalkideak proposamena azaldu eta justifikatuko du, egokitzat jotzen badu, eta gehienez, 5 minutu izango ditu hori egiteko. Ondoren, talde politiko bakoitzak lehen txanda bat izango du, gehienez, 5 minutukoa, proposamenaren inguruan duen iritzia adierazteko. Bere txanda amaituta, beste 3 minutu izango ditu gero besteei erantzuteko, eta ondoren, talde politiko bakoitzak bigarren txanda bat ere izango du hari erantzuteko, 3 minutukoa gehienez. Udalkideak lehen txanda amaituta ez badu erantzuten, eztabaida amaitutzat hartu eta, hala badagokio, bozkatuko da.

Udalkideak eztabaidaren hasieran parte hartzeko duen aukera ez badu erabiltzen, ez du izango erantzuteko txandarik, eta eztabaida aurretik adierazitakoaren arabera egingo da, hots, talde politikoek bakarrik parte hartuko dute.

Talde politiko batek lehen txandan ez badu parte hartzen bere iritzia emateko, ezingo du parte hartu erantzuteko txandan. Eztabaidan talde politiko batek bakarrik parte hartzen badu, ez da egongo erantzuteko txandarik.

Gai berean pertsona berak ezingo du parte hartu udalkide eta bere taldeko bozeramaile gisa aldi berean.

Bozkatu ondoren talde politiko batek ez badu eztabaidan parte hartu, proposamenari emandako botoa azaldu ahalko du, gehienez, bi minututan. Azalpenak ematean ezingo du hitz egin talde politikoek eztabaidan adierazitakoari buruz.

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan hitz egin daiteke, eta alkateak hala eskatzen duten talde politikoei emango die hitza. Hitz egiterako orduan, zinegotzi gutxien dituen taldeak hitz egingo du lehendabizi, eta gehien dituenak azkena. Zinegotzi kopuru bera duten taldeak badaude, azken udal hauteskundeetan botorik gutxien lortu duenak hitz egingo du lehendabizi.

- c) Alkatea azalpenak ezarritakoa baino gehiago ez luzatzeaz arduratuko da, eta eztabaidaren gaira mugatuko da.
- d) Beste batek aipatu duela uste badu, barkamena eskatu edo berari egotzitako jarrerak, adierazpenak edo jarduketak argitu nahi baditu, parte hartzeko txanda eskatu ahalko dio alkateari. Labur eta zehazki azalduko du, gehienez, 2 minututan. Alkateak hori egiteko aukerarik ez badio ematen, Idazkari Nagusiak horren berri emango du aktan.
- e) Alkateak bakarrik ohartaraz dezake eztabaidatutako gaiari buruz bakarrik hitz egitea.



2. Alkateak eskatzen badu, Idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako funtzionarioek hitz egin ahalko dute, aholkularitza teknikoa emateko edo kontzeptuak azaltzeko. Funtzionarioek uste badute legezkoa ez den edo aurrekontuetan eragina izan dezakeen gairen bat berariaz proposatu dela eztabaidan, hitza eskatu ahalko diote alkateari, Udalbatzari aholku emateko.

3. Ordena ezartzeko, eztabaidaren edozein egoeratan, Arautegi hau bete dadila eskatu ahalko diete zinegotziek alkateari, eta zer arau aplikatu behar den adieraziko dute. Lehendakariak dagokiona ebatziko du, eta horrek ez du eztabaidarik sortuko. Ohartarazteko kontuak ez dira txandatzat hartuko.

4. Osoko Bilkuraren aztergaien zerrendaren amaieran, eskeak eta galderak egiteko txanda bar egongo da. Horretan, bertan dauden herritarrek gobernu-presidentetza taldeari eskeak eta galderak egiteko aukera izango dute eta azalpena egiteko 5 minutuko txanda izango dute. Elkarrizketa herritarren eta gobernu-presidentetza taldearen artean izango da, eta gobernu-presidentetza taldeak erantzuteko bost minutuko txanda bat izango du. Ondoren esandakoari erantzuteko beste bi minutuko txanda bat bakoitzak izango du. Udal talde politiko bati edo udalkide bati aipamen zuzeneko kasua dagoenean ez presidentetzak eragindako talde edo udalkideari erantzuteko bi minutuko txanda emango dio.

II. KAPITULUA

UDAL TALDEEK ETA ZINEGOTZIEK AURKEZTEN DITUZTEN MOZIOAK

LEHEN ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

3. artikulua.— Definizioioia

Moziotzat joko da edozein udal taldek edo zinegotzik osoko bilkuran defendatzeko xedearekin aurkeztu duen erabaki proposamena. Ez du administrazio-izapiderik behar izango gai-zerrendan sartzeko.

Moziok bi zati izango ditu: zioen azalpena eta erabaki proposamena. Haren edukia tokiko intereskoa izan behar du Getxoko hiritarrekiko duen eraginagatik.

4. artikulua.— Eraginak

Moziok indarrean dagoen legediak zehazten duten ondorio juridiko eta administrazio-tiboak izango dute; halere, mozioren edukian Udalbatzak daukan irizpidearen adierazpena izango dira.

5. artikulua.— Gai-zerrendatzea

Epebarruan aurkeztutako moziok ez bada gai-zerrendan sartzen, Alkatetza-Udalburutzak ofizios jakinaraziko dio mozioren egileari hura baztertzeko arrazoia. Modu berean, hartutako ebazpenaren berri emango die udaleko talde politikoekin bozeramaileei.

Osoko bilkurako gai-zerrendako moziok deialdiarekin batera bidaliko dira.

6. artikulua.— Tratamendua

Osoko bilkuretan, mozioren tratamendua gai-zerrendako puntuen tratamenduaren berdina izango da.



BIGARREN ATALA

ZINEGOTZIEN ETA UDAL TALDEEN MOZIOAK**7. artikulua.—Sinadura eta aurkezpena**

Mozioak Idazkaritza Nagusian sartu behar dira, idatziz, aurkezten dituen zinegotziaren edo udal taldearen bozeramailearen sinadurarekin. Mozioa sartu nahi den gai-zerrendako osoko bilkura deitzeko epea amaitu baino bi egun lehenago aurkeztu behar da, gutxienez.

8. artikulua.—Atzera botatzea

Gai-zerrenda osatu aurretik —edo gai-zerrenda osatutakoan baina osoko bilkura egin baino lehen— atzera bota ahal izateko, beharrezkoa izango da Idazkaritza Nagusiari idazki bat zuzentzea, proposamena egin duenak edo ekimena izan duen udal taldearen bozeramaileak idatzita.

9. artikulua.—Premiazko mozioa

Premiazko mozio bat egin ahalko da ohiko bilkuretan udalari gai-zerrendan ageri ez den zerbait zuzenean jakinarazi nahi zaionean. Egileak kasuaren premia alegatu eta justifikatu beharko du, eta Udaltzarak adierazi beharko du premia, bere kideen gehien-go osoaren aldeko botoaren bidez, gaiaren mamiaz ebatzi baino lehen. Osoko bilkuran udal organoen kontrolari buruzko atalaren tratamenduari ekin aurretik eztabaidatuko da premia. Premia onartzen bada, eta udalburuak aurkakoa xedatzen ez badu, premiazko mozioak deialdiko gai-zerrendan dauden gaiak amaitutakoan aztertuko dira.

HIRUGARREN ATALA

MOZIOEN ATZERA BOTATZEA ETA ZUZENKETAK**10. artikulua.—Zuzenketak**

Onesteko aurkezten den mozioaren zuzenketak mozioaren osotasunean edo zati batean izan dezake eragina eta idatziz aurkeztuko da, mozioa bozkatu baino lehen.

Zuzenketa onartu ahal izateko, mozioa proposatu duenak onetsi beharko du; ahoz adieraziko du bere jarrera osoko bilkuran.

Zuzenketa partzial baten onarpenak zuzenketa-idazkian aipatutako atalak aldatzea ekarriko du.

Osotasunaren zuzenketa onesteak jatorrizko proposamena gaitzestea ekarriko du, eta testu berriarekin ordeztuko da, osorik.

Mozioa proposatzen duenak bere testua zuzendu ahalko du, bai azalpen zatian bai erabaki proposamenean, Idazkaritza Nagusiari idazki bat bidaliz nahiz ahoz, osoko bilkura egiten denean, baldin eta zuzenketaren edukiak okerrak ongitu baino ez badu egiten, mozioaren edukia edo zentzua aldatu gabe.

11. artikulua.—Atzerabotatzea

Mozio bat proposatzen duenak edozein unetan atzera bota ahalko du, bozketa baino lehen.

III. KAPITULUA

BOZERAMAILEEN BATZORDEA**12. artikulua.—Izaera eta osaera**

1. Bozeramaileen Batzordea alkatearen aholku-organo laguntzailea da, funtsean arlo politikoan edo erakunde arloan (ez kudeaketa-arloan), eta ezohiko gaietan edo udal bizitzan sortzen diren gai garrantzitsuetan.



2. Bozera maileen Batzordea alkatearen ebazpenaren bidez eratuta geratuko da, haren kideak izendatutakoan. Kideak aldatzen badira, izapide bera egin beharko da.

3. Talde politikoek zinegotzi bozera maileek osatuta egongo da. Haiek ez badaude, ordezkoei parte hartuko dute. Atxiki gabeko zinegotziak ezin daitezke egon Bozera maileen Batzordean.

4. Alkatea edo hark eskuordetzen duen zinegotzia izango da lehendakaria.

5. Batzordeko idazkaria osoko bilkurako ordezkaria izango da.

13. artikulua. — Funtzionamendu araubidea

1. Bozera maileen Batzordea Lehendakariak deituta, edo talde politikoek bozera maile batek edo gehiagok eskatuta bilduko da, Lehendakariak komenigarritzat jotzen badu.

2. Deialdia, premiazkoa ez bada, mezu elektronikoko baten edo baliabiderik azkarrenaren bidez egingo da, hasi baino 12 ordu lehenago, eta arituko diren gaiei buruzko informazio nahikoa jaso beharko du. Bozera maile batek eskatu duela egiten bada deialdia, lehendakariak, premiazko kasuetan izan ezik, gehienez bi egun balioduneko epean egingo du, idatziz, eta zer gairi buruzkoa izango den adieraziko du.

Bozera maileen Batzordea bilduko da:

- a) Eztatatu eta, hala badagokio, onartu Adierazpen Institutuzionalak. Hauek Getxoko Udaleko Bozera maileen Batzordeak interes orokorreko gaiei buruz egiten dituen idatzizko adierazpen politikoak dira. Euskadiko Toki Erakundearen Legean eta Toki Araubideko Oinarrien Legean jasotzen diren arloei buruzkoa da.
- b) Aztertze, eta hala badagokio, gai garrantzitsuen inguruan zer jarrera politiko hartu erabakitze, edo udalbatzak jorratze gaian iritziak hurbiltze helburuarekin, gertaera berriak agertzen badira, eta ordura artekoa baino handiagoa den adostasuna lortze.
- c) Erakundearen erabakiak hartze premia badago eta udal erakundearen beste ezein organoren eskumena ez diren gaiei buruz aritze.
- d) Osoko bilkurako bileren funtzionamenduari zerikusia duen beste edozein gairi buruz ere aritu ahalko da.
- e) Arautegi honetan araututako kasu guztietan.

Bozera maileen batzordeak boto haztatuaren bidez hartuko ditu erabakiak. Lehendakariak organo honek erabakiren bat hartzea beharrezkotzat jotzen badu, boto haztatua aplikatuz hartuko da beti.

3. Bozera maileen Batzordearen bilera guztien akta egingo da. Akta Bozera maileen Batzordea biltzen den hurrengo bileran onetsiko da, eta Gai Zerrendako lehen puntu gisa jasoko da aurreko bileraren aktaren onspena. Horrez gain, hurrengo bileraren deialdiarekin eta gai-zerrendarekin batera bidali beharko da.

IV. KAPITULUA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA

14. artikulua. — Osaera

Tokiko Gobernu Batzarra Alkateak eta legez, gehienez egon daitezkeen zinegotzien heren batek osatzen dute. Zinegotzi horiek, Alkateak izendatzen ditu libreki eta bereiz, Osoko bilkurari jakinaraziz.

15. artikulua. — Eskumenak

Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio:

- a) Alkate andreaki edo jaunari bere eskuduntzetan laguntzea.
- b) Alkate andreaki edo jaunari edo osoko bilkurak haren eskuordetzen dituzten eskuduntzak baliatzea, tokiko araubideko arautegiak ezartzen duen moduan.
- c) Legeek ematen dizkieten gainerako eskuduntzak erabiltzea.

**16. artikulua.— *Bilkura motak***

1. Bilkurak Tokiko Gobernu Batzarrak xede horretarako hartzen duen erabakian aurrez ezarritako maiztasunarekin egingo dira. Salbuespenezko kasuetan izan ezik, abuztuaz ez da bilkurarik egingo.

2. Ezohiko bilkurak dira Alkateak izaera horrekin deitzen dituztenak; ez dute maiztasuna aldeztuz ezarrita.

17. artikulua.— *Deialdia*

1. Alkateari dagokio gai-zerrenda eta Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurarako deialdiak ezartzea, eta hori, baliabide elektronikoen bidez egingo da, gutxienez hogeita lau ordu lehenago, aipatutako epearen barruan egin ezin diren premiazko kasuetan izan ezik. Horietan, gai-zerrendako gaien berri eman aurretik, kide gehienek premiazko kasu hori berretsi beharko dute.

2. Hala ere, Tokiko Gobernu Batzarra erabakia eratu geratuko da deialdiaren baldintza guztiek bete ez arren, legez horiek ordezkatzeko kide edo pertsona guztiak bilduta badaude eta aho batez hala erabakitzen badute.

3. Bilkuran aztertuko den dokumentazioa, akordio-proposamenak eta proposamen horiek oinarritzen diren txostenak kideen eskura egongo dira deialdiaren egun beretik, justifikatutako arrazoiengatik edo premiazko arrazoiengatik ezin bada salbu.

18. artikulua.— *Gobernu Batzarra eratzea*

1. Tokiko Gobernu Batzarra erabakia eratu geratuko da gutxienez kideen erdia bertaratzen bada. Gutxienez, hiru egun beharko dira. Dena den, Udaleko Alkateak edo idazkaria, edo haien ordezkariak nahitaez bertaratu beharko dute. Kopuru hori bilkura osoa mantendu beharko da.

19. artikulua.— *Erabakiak hartzea*

1. Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiak bertaratutako gehiengo osoarekin hartzen dira, hau da, aldeko boto gehiago egon beharko da negatiboak baino. Berdinketa gertatzen bada, Alkatearen kalitateko botoak erabakiko du.

2. Osoko bilkurak eskuordetutako eskumenak badira, dagokion Informazio Batzordeak ezarri beharko ditu zer gai jorratuko diren.

20. artikulua.— *Bilkuren publikitatea*

1. Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurak publikoak izango dira ordenamendu juridikoak hala ezartzen badu. Kasu horretan, osoko bilkurak izaera horrekin egitea ezarri ahalko du, kideen legezko kopuruaren gehiengo osoarekin. Hala eta guztiz ere, publikoak izan beharko dute, herritarren ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako funtsezko eskubidea gorabehera, organo horrek osoko bilkurak eskuordetutako eskuduntzak erabiliz jarduten duten Gobernu Batzarraren bilkurek.

2. Dena den, aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, Alkateak honako hauek ere egotea eta parte hartzea eskatu ahalko du kasu jakin batzuetan: zuzendarien edo udal administrazioko langileak, bere kabuz edo herritarren elkarte edo erakundeen ordezkari gisa, arazoaren irizpide teknikoa edo ikuspegia azalduz, gai horren inguruko erabakian lagun dezaketen pertsonak.

3. Udal taldeei Tokiko Gobernu Batzarrak hartzen dituen erabakien laburpen bat bidaliko zaie, eta udalaren web-orrian argitaratuko da, betiere gardentasunari eta datu pertsonalen babesari buruzko arautegia kontuan hartuz.

4. Artikulu honetan ezartzen ez den guztian, arautegi honetan osoko bilkuretarako ezartzen dena aplikatuko da Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura publikoetan.



V. KAPITULUA
BATZORDE INFORMATIBOAK

21. artikulua.— Aurretiko xedapenak

1. Batzorde informatiboek publikoak izango dira.
2. Batzordeetarako jendearen asistentziaren kontrolak osoko bilkurako asistentziaren kasuan egiten den berbera izango da.
3. Batzordeak leku egokian egingo dira, pertsonentzako edukiera eta hizkuntza-eskubideen bermeari dagokienez (hau da, aldibereko itzulpena egon ahal izatea).

22. artikulua.— Definizioa

Informazio Batzordeak kide anitzeko udal organo osagarriak dira, eta udal talde politikoek izendatzen dituzten kideek osatzen dute, osoko bilkurak dituen zinegotzi kopurua kontuan hartuta.

23. artikulua.— Osaketa

Kopurua, izena eta osaera osoko bilkurak erabakiko du eratzean, edo geroago hartzen diren eta horiek aldatzen dituzten osoko bilkuraren erabakien bidez, udal talde bakoitzak osoko bilkuran duen ordezkaritza kontuan hartuz. Aldaketak egiteko, gehiengo soila beharko da.

24. artikulua.— Eginkizunak

Hauexek dira Informazio Batzordeen eginkizunak:

- a) Udalbatzako osoko bilkurak erabaki behar dituen kudeaketa arloaren gaiei buruzko aurretiko irizpena ematea.
- b) Batzordeburuak proposatutako gaiei buruz informatzea eta eztabaidatzea.
- c) Dagokion arloaren gobernu eta kudeaketa lanak kontrolatzea, batzordeburuari galderak eta interpelazioak eginez.
- d) Dagokion arloaren jarduketa-lerroak eztabaidatzea.

25. artikulua.— Irizpenak

1. Informazio Batzordeen bileren emaitzak irizpen, proposamen edo horien antze-koak diren beste edozeinen bidez emango dira, eta ez dira inola ere erabakiak izango.
2. Informazio Batzordearen irizpenaren aurretik, arloko burua den administrazio unitatearen edo funtzionarioaren txostena ezagutu beharko du.
3. Irizpenak batzordeko kideen gehiengo botoen bidez emango dira, eta irizpenak eman diren bilerako buruak sinatuko ditu.
4. Irizpenaren aurka agertzen den batzarkideak bere aurkako botoa jasota geratzea eskatu edo boto partikularra eman ahalko du.

26. artikulua.— Batzorde burua

Alkate andreak edo jaunak Informazio Batzorde guztien burua izango da, baina alkateorde bati edo arloko arduradunari eskuordetu ahalko dio burutza arlo bakoitza eratzean.

27. artikulua.— Buruaren eginkizunak

Informazio Batzordeetako buruek lehendakariorde bat izendatu ahalko dute beraiek ez daudenean ordezkatzeko.

Batzordeburuak eztabaida zuzenduko du, eta udal talde guztiak euren eritzia emateko aukera izan ostean, eta irizpena emateko gaia nahiko eztabaidatua ikusten duenean eztabaidari amaiera emango dio.

Batzordeburuak kalitateko botoa izango du berdinketa gertatzen denean.

**28. artikulua.— Idazkaritza**

Ardurapean dagokion arloko administrazio-zuzendaritza duten funtzionarioak izango dira batzordeetako idazkariak, eta alkateak izendatuko ditu, idazkari nagusiak proposatuta.

29. artikulua.— Galderak

Udal taldeek Informazio Batzordeei egindako galderak idatziz egin beharko dira udal erregistroan, Informazio Batzordearen gai-zerrenda egin baino bi egun lehenago gutxienez, eta gai-zerrendan barne hartu beharko da. Batzordearen barruan galde-eskeen puntuan jorratuko dira, erregistro-ordenari jarraituz.

30. artikulua.— Deialdia

1. Informazio Batzordeen bileren deialdiak posta elektronikoz bidaliko zaizkie osatzen duten kideei eta haien udal taldeari, bilerak egin baino bi egun lehenago gutxienez. Gai-zerrendarekin batera, bileraren gaiari buruzko informazio edota dokumentazio guztia ere bidali beharko zaie batzordeko kideei. Ezin bada bidali, non kontsulta daitekeen adieraziko da.

2. Halaber, gai-zerrendan barne hartzen ez diren beste gai batzuei buruz ere hitz egin ahalko da, Batzordeko buruak edo Batzordeko kideen gehiengo osoak proposatuta.

31. artikulua.— Eraketa

Kideen legezko kopuruaren heren batekin eratzen dira batzordeak, eta gutxienez, hiru kide izan beharko dira. Dena den, buruaren eta batzordeko idazkariaren edo legez ordezkatzan dituztenen laguntza eskatuko da. Batzordearen bilera egiten den bitartean kide kopurua mantendu beharko da.

32. artikulua.— Maiztasuna

Batzordeak gutxienez hilean bilduko dira. Ez badago osoko bilkurarik programatuta, ez da nahitaez egin beharko.

33. artikulua.— Boto ordezkatur

Osoko bilkurarako araututako kasuetan eta xede gisa osoko bilkuran erabaki behar diren gaiak aztertzea, jakinaraztea edo kontsultatzea duten batzordeetan bakarrik eskuordetu daiteke botoa, zinegotzi bakoitzak ezingo du izan eskuordetutako boto bat baino gehiago.

34. artikulua.— Akta

1. Informazio Batzordeak egiten duen bilera bakoitzaren akta egingo da, eta idazkaritzak sinatuko du. Funtsean hauek jasoko dira: hasiera eta amaiera data, bertaraututako izena, aztertutako gaiak eta egindako kontsultak, azterketak, txostenak eta emandako boto partikularrak, bozketen emaitzak eta adierazitakoaren laburpena, interresdunek formalki hala eskatzen badute.

2. Akta buruak eta idazkaritzak sinatuko dute.

3. Batzordeetako idazkariari dagokio gai-zerrendako gaiak prestatzea, Batzordeak egiten dituen kontsultak, azterketak eta txostenak idaztea, eta udal arloek bidaltzen dizkioten espedienteak kontrolatzea eta zaintzea.

4. Idazkariak beharrezko neurriak hartuko dituzte Batzordeetan izapidetutako espedienteak idazkari nagusiari bidaltzeko, Alkatetzak osoko bilkuren gai-zerrenda egiteko moduko nahikoa denborarekin.



VI. KAPITULUA

UDALAREN AURREKONTUAK

35. artikulua. — Aurrekontuaren definizioa, integrazioa eta indarraldia

1. Ekitaldi ekonomiko eta aurrekontu-ekitaldi bakoitzean egin beharreko jarduera ekonomikoaren zuzendaritza-programa osatzen duten erabakien adierazpen formalak dira aurrekontu orokorrak, finantza eta kontabilitate arloan.

2. Halaber, tokiko erakundearen baliabideak zuzen kudeatzeko tresnak ere dira aurrekontu orokorrak.

3. Aurrekontu orokorrak hauek osatzen dute: erakundearen aurrekontuak, haren eremu autonomoenak eta enpresa-erakunde publikoenak, haren mendeko sozietate publikoenak, eta atxikitako partzuergoenak, betiere haien egintzak tokiko erakundearen erabakitzeko ahalmenarekin zuzenean edo zeharka lotuta badaude. Erakundeari atxikitako gainerako partzuergoen aurrekontuekin batera, aurrekontu orokorrak ere barne hartuko da, informazioa baino ez emateko.

4. Ekitaldi ekonomikoa edo aurrekontu ekitaldia urte naturalarekin bat etorriko da.

36. artikulua. — Aurrekontuak egiteko eta onesteko prozedura

1. Udal aurrekontuak egiteko eta onartzeko prozedura, aplikatzen den toki ogasunen arloko berariazko foru arautegiak eta hurrengo 2. atalean ezarritakoak arautzen dute.

2. Alkateari eta hark eskuordetutako zinegotziari dagokio tokiko erakundearen aurrekontu-proiektua presatzea hurrengo egoerak eta aurreikusiak kontua harturik:

— Erakunde Autonomo bakoitzeko aurrekontua, bere estatutuen arabera gai den organoaren behin- behineko onarpenarekin.

— Sozietate Publikoak eta beste erakunde instrumentaleen aurrekontuari buruz igorri behar duten dokumentazioa.

3. Egindako proiektua eta aurrekontuei buruzko arautegiak eskatzen duen dokumentazio guztia udal taldeei bidaliko zaizkie, irizpena eman behar duen Informazio Batzordea egin baino bost egun lehenago, udal arlo guztiek aurkeztu dezaten.

4. Udal taldeek 10 eguneko epea izango dute adierazitako Informazio Batzordea egin denetik, aurrekontu-proiektuari zuzenketak aurkezteko.

5. Zuzenketak osoak edo partzialak izan daitezke. Zuzenketa osoak dira aurrekontuak itzultzea eskatzen dutenak, osorik berregin daitezen.

Zuzenketa partzialak izan daitezke aurrekontuen programa, artikulua, kontzeptu edo oinarri bat kentzea, aldatzea edo gehitzea. Azken hiru kasuetan, zuzendutakoa ordezkatzeko proposatzen duen testu osoa jaso beharko da.

Gastua handitzea edo diru-sarrerak txikiagotzea ekartzen duten ordezkatzeko edo gehitze zuzenketek, konpentsazio-sarreraren aurreikuspenak edo ordezkoko gastua kentzeko aurreikuspenak jaso beharko dituzte, aurrekontu-oreka mantendu ahal izateko. Ez da onartutako eztabaidatzeko zuzenketarik aurreikuspen hori ez badute jasotzen.

Ez dira izapidetzeko onartuko ekitaldian egiteko ezinezkoak edo zailak diren diru-sarreraren gehikuntzak barne hartzen dituzten zuzenketak, edo legez ezin badira aplikatu proposatutako helburuekin.

6. Behin zuzenketak aurkeztuta, udaleko Kontu-hartzaitzak txostena egin ondoren zuzenketak udal taldeei bidaliko zaie, Udal Kontuhartzailearen txostenarekin batera Aurrekontu Proiektuari buruzko irizpena emango duen informazio-batzordea egin baino hiru egun lehenago.

7. Batzordean, lehendabizi, zuzenketa osoak bozkatuko dira, bakoitza bere aldetik.

Edozein aintzat hartzen bada, irizpena amaitutzat hartuko da, osoko bilkurara eramanez. Zuzenketa osorik ezin bada onartu, zuzenketa partzialak eztabaidatuko dira. Eztabaida egiteko, aurrekontuko programa funtzionalen egiturari jarraituko zaio, eta banaka edo batera bozkatuko da zuzenketa bakoitza.



8. Batzordearen irizpena onartutako zuzenketen ondorioz aurkeztutako proiektuari buruz egingo da. Batzordea egin eta bi egunetara gehienez, monografikoa izango den osoko bilkuran eztabaidatzako eta bozkatzeko onartu gabeko zer zuzenketa mantentzen diren adierazi beharko dute udal taldeek.

9. Irizpena azalduz hasiko da osoko bilkuran izapidetzen, eta ondoren, zuzenketa osoak eztabaidatuko dira. Batera egingo da, geroago banaka bozkatzeko. Zuzenketa osoren batek aurrera egiten badu, aurrekontua itzuliko da eta ez dira eztabaidatuko zuzenketa partzialak.

Ez badu aurrera egiten zuzenketa osorik, zuzenketa partzialak eztabaidatuko dira.

Eztabaidatu behar diren zuzenketa kopuruaren arabera, Bozeramaileen Batzordeak udal taldeen txandak eta zuzenketak bozkatzeko egin daitezkeen taldeketak erabakiko du.

Zuzenketen eztabaida eta bozketa amaituta, irizpena bozkatuko da, osoko bilkurako eztabaidan barne hartu diren zuzenketekin.

10. Euskadiko Toki Erakundeen 78. artikuluan aipatzen den partaidetza-prozesuak artikuluko honen 3. puntuan ezarritako epean amaituta egon beharko du.

37. artikulua.— *Partaidetza-prozesua*

Euskadiko Tokiko Erakundeen Legearen 79. artikuluan aipatzen den partaidetza-prozesua web-orriaren eta kasu bakoitzean ezar daitezkeen beste formula batzuen bidez egingo da, herritarrek ere parte har dezaten.

Herritarrek gutxienez 10 egun izango dituzte proposamenak aurkezteko.

Alkatetzaren edo zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez, aurrekontu bakoitzean zer partaidetza-formula erabili den, zer epe zehatz dagoen eta partaidetza-prozesuan zehaztutako den zenbatekoa jasoko dira.

VII. KAPITULUA

UDAL TALDEEN GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

38. artikulua.— *Lokalak eta baliabideak*

Udalak talde politikoentzako eta atxiki gabeko zinegotzientzako eskuragarri jarriko ditu horiek funtzioak egikartzeko behar dituzten lokalak eta baliabide materialak.

39. artikulua.— *Giza-baliabideak*

Udal talde politikoek langileak izango dituzte administrazio eta aholkularitza funtzioak egikartzeko, legegintzaldi hasieran plantilla onesteari eta udaleko aldi baterako langileen ordainsariei buruz hartutako erabakiaren ondorioz.

40. artikulua.— *Bulegoa*

Talde politiko bakoitzak bulego bat izango du udaletxean. Eskuragarri dauden bulegoen artean talde bakoitzaren zinegotzi kopuruaren arabera aukeratutako bulegoak esleitu dira, eta kopurua berdina bada azken udal hauteskundeetan boto gehien izan zituztenetatik hasi eta gutxien izan zituztenen ordena jarraituko da bulegoak esleitzeko.

Bulego bakoitza dagokion udal taldearen lanei lotuta egongo da, eta edonola ere bulegoak ezingo dira erabili udal kudeaketatik kanpoko lanetarako, eta ezingo zaizkie ezta ere hirugarrenei laga. Bulegoak erabiltzean bertan dauden zinegotziak izango dira horien erabilera zuzenaren arduradunak.

41. artikulua.— *Salbuespenak*

Alkateak hala baimendu ezean, ez dira udaleko bestelako bulegoak, instalakuntzak edo espazioak erabiliko, eta ez dira ezta ere udaleko langileen edo udaleko administrazio lanetarako erabiltzen diren tresnak erabiliko. Talde politiko bakoitzeko arduradunek horri buruzko konpromisoa eta ardura beren gain hartu dute.



VIII. KAPITULUA

UDALBATZARI MOZIOAK AURKEZTEKO HERRITARREK EGINDAKO EKIMENA**42. artikulua.— Eremua**

Kapitulu hau, herritarren ekimenari buruzkoa, TAOL-ean eta ETEL-ean araututako herri ekimenean ez dauden kasuei aplikatu behar zaie.

43. artikulua.— Aurkezpena

Honako hauek dira mozioak aurkeztu ahal dituztenak, beraien edukia toki eremuari buruzkoa bada:

1. Elkarteen udal erregistroan izena emanda dauden erakundeak. Horretarako, euren batzarraren edo zuzendaritza batzordearen erabakia aurkeztu beharko dute, eta gutxienez adin nagusiko herritarren %1en sinadurak.

2. Getxon errolatuta dauden adin nagusiko pertsonak, gutxienez adin nagusiko herritarren %1en sinadurarekin.

Proposamenak idatziz aurkeztuko dira, udal webgunetik deskargatu ahalko den formulario baten bitartez (Eranskina). Udaleko Idazkaritza Nagusiak sinaduren betekizuna betetzen dela ziurtatuko du.

44. artikulua.— Tratamendua

Izapide horiek betetzen diren egunaren ondoko osoko bilkuraren gai-zerrendan sartuko da ekimena.

Gai-zerrendako azken puntuari sartuko da, zinegotzien eta udal talde politikoen mozioen ondoren.

Proposatzaileen izenean, ordezkari batek puntuari hasieran hitza hartzeko aukera izango du proposamena aurkezteko bost minutuko txandarekin. Jarraian udal taldeen eztabaidatzeko txanda izango da.

45. artikulua.— Bozketa

Udalbatzak mozioa onetsi edo ezetsi ahalko du, bozketaren bidez. Onartuz gero indarrean dagoen legediak zehazten duten ondorio juridiko eta administratiboak izango dute Ezetsiz gero, ezin izango da gai horri buruzko moziorik aurkeztu, harik eta urtebete igaro arte.

46. artikulua.— Zuzentzeko ezintasuna

Herritarren ekimenez aurkeztutako mozioen kasuan, ez da egongo zuzentzeko aukerarik.

IX. KAPITULUA

HERRITARREK INFORMAZIO BATZORDEETAN PARTE HARTZEA**47. artikulua.— Araudia**

Informazio batzordetako aztergaien zerrendaren deialdiak udal webgunean eta iragarkien oholtzan argitaratuko dira eta udal taldeei igorriko zaie.

Informazio batzordeetan herritarrek euren burua ordezkatzuz edo Getxoko elkarten erregistroan inskribatutako elkarte baten ordezkari bezala parte hartu ahal dute (kasu horretan, elkartearen ordezkari izan behar da).

Herritarren parte hartzea kasu hauetan egin ahal izango da:

- a) Informazio batzordearen aztergaien zerrendaren edozein puntutan jorratzen den espedientean herritarra beste interesdun bat dela egiaztatzen duen aztergaien zerrendaren puntuetan: Interesdunak batzordea egin baino lehenagoko 24 orduko epea izango du, beste interesdun bat dela egiaztatzeko, aztergaien zerrendaren puntuaren eztabaidan parte hartu ahal izateko helburuarekin. Udal taldeek



hitz egin aurretik mintzatu ahal izango da, eta azalpena egiteko 5 minutuko txanda izango du.

- b) Informazio batzordeko aztergaien zerrendaren amaieran, eskeak eta galderak egiteko puntua sartuko da. Horretan, bertan dauden herritarrek gobernu-presidentetza taldeari eskeak eta galderak egiteko aukera izango dute. Kasu honetan ere, azalpena egiteko 5 minutuko txanda izango dute. Kasu honetan, eskea edo galdera batzordearen eskumenekoak diren eta jorratzen ari diren gaietara mugatuko da.
- c) Bi kasuetan, elkarrizketa herritarren eta gobernu-presidentetza taldearen artean izango da, udal talde politiko bati edo udalkide bati aipamen zuzeneko kasua ez bada. Kasu horretan presidentetzak eragindako talde edo udalkideari erantzuteko txanda emango dio.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Aldaketa honek UAO-ko 60, 63, 74, 96, 102, 103, 107 eta 116tik 133rarteko artikulua indargabetzen ditu eta baita aldaketa honetan xedatutakoari aurka egiten dioten UAO-ko artikulua.

AZKEN XEDAPENA

Aldaketa hau datorren udal Gorporazioaren agintarekin bat indarrean sartuko da.

Getxon, 2019ko apirilaren 17an.—Idazkari Nagusia/Secretario General, Ignacio Javier Etxebarria Etxeita